

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

20/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko zergen arloko foru arau batzuei zuzenketa teknikoak ezartzen dizkiena

Arabako Biltzar Nagusiek 2014ko ekainaren 18an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

20/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko zergen arloko foru arau batzuei zuzenketa teknikoak ezartzen dizkiena.

ZIOEN AZALPENEA

Bi foru arau onartu dira oraintsu: 33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa; 37/2013 Foru Araua, abenduaren 13koa, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa.

Foru arau horietan hainbat inkongruentzia aurkitu dira, bai eta berorien aipamenak egiten diren beste foru arau batzuetan ere, esate baterako kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauan eta irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauan. Horregatik guztiagatik foru arau honen bidez inkongruentzia horiek zuzendu dira, bestela arautegiaren aplikazioan arazoak sor litezke eta.

Horrez gainera Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Araua aldatu da ehuneko 95eko murrizketa sartzeko eskualdaketa kasu jakin baterako: baldintza jakin batzuk betetzen direla, zergadunak banako enpresa, lan negozioa edo erakunde bateko partaidetza eskualdatzea bere ezkontideari edo izatezko bikotekideari, aurreko edo ondorengo ahaide bati edo adoptatu edo adoptatzaile bati. Aldaketa hau bat dator zuzeneko lerroan egiten diren dohaintzarako eta ezkontideen eta izatezko bikotekideen artean egiten direnetarako ezarritako salbuespena ezabatzearekin (ezabaketa 2012ko apirilaren 1ean hasi zen ondorioak sortzen).

I. KAPITULUA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren aldaketa

Hainbat aldaketa egin dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan:

Bat. 9. artikuluko 4. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“4. Klase pasiboen araubidean ezereztasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotzen diren pentsioak, baldin eta ezereztasuna edo ezintasuna ekarri duen lesioak edo gaixotasunak pentsioaren hartzaileari erabat eragozten badio lanbide edo ogibide batean aritzea edo, bestela, zergadunak ez badu jasotzen bere lanagatik foru arau honetako 18.a) artikuluan ezarritakoez beste etekinik, ez jarduera ekonomikoen etekinik.

Hala ere, aurreko paragrafoko azken tartekian aipatutako bateraezintasuna ez da aplikatuko pentsioa jasotzen den lehenengo zergaldian.”

Bi. 9. artikuluko 17. zenbakia aldatu da eta honela geratu da:

“17. Atzerrian egindako lanengatik jasotzen diren lanaren etekinak, honako baldintza hauek betetzen badira:

1go. Lan horiek Espainian egoitzarik ez daukan enpresa edo erakunde batentzat edo atzerrian finkatutako establezimendu iraunkor batentzat egitea arauz ezartzen den bezala. Be-reziki, gertatzen bada lanak hartu behar dituen erakundeak lotura daukala langilea enplegatu duen erakundearekin edo haren zerbitzuak jasotzen dituen enpresarekin, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 44. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako baldintzak bete beharko dira.

2gn. Lanak egin diren lurraldean hau bezalako edo honen antzeko zerga bat aplikatzea, eta lurraldea edo herrialdea zerga paradisua ez izatea. Ondoko kasuan betekizun hori betetzat joko da: lanak egin diren herrialdeak edo lurraldeak Espainiarekin hitzarmena sinatuta badauka nazioarteko zergapetze bikoitza ekiditeko, eta hitzarmen horrek informazioa trukatzeko klausula badauka.

Salbuespena atzerrian emandako egunetan sortutako ordainsariei aplikatuko zaie; urtean 60.100 euro salbuetsiko dira gehienez.

Atzerrian destinaturik dauden zergadunentzat salbuespen hori bateraezina izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren arabera kargatik salbu dauden soberakinen araubidearekin, dena dela atzerrian jasotako errenten zenbatekoa. Zergadunak salbuespen hau gabe soberakinen araubidea aplikatzea hautatu ahal izango du.

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 115. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoaren ondorioetarako, zergadun bakoitzak autolikidazioa aurkezten duenean argitu behar du salbuespen hau edo soberakinen araubidea aplikatzea nahi duen. Zergaldi baterako egiten den hautapena geroago aldatu ahal izango da, hain zuzen ere Zergaren aitortpena nork bere borondatez aurkezteko epealdia amaitu arte edo, bestela, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egin arte.”

Hiru. 90. artikuluko 2. idatz zatiko a) letra aldatu da eta honela geratu da:

“a) Sozietate anonimoaren, erantzukizun mugatuko sozietatearen, lan sozietate anoni-moaren edo lan erantzukizun mugatuko sozietatearen forma edukitzea, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuko Kapital Sozietateei buruzko Legeko testu bateginean eta Lan Sozietateei buruzko martxoaren 24ko 4/1997 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, edo sozietate kooperatiboarena, eta ez egotea negoziatorako onartua merkatu antolatuta batean. Baldintza hau akzioa edo partaidetza edukitzen den urte guztietan bete behar da.”

II. KAPITULUA

SOZIETATEEN GAINKO ZERGA

2. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren aldaketa

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauan aldaketa hauek egin dira:

Bat. 24. artikuluko 6. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“6. Partaidetzen eskualdaketak foru arau honetako 34. artikuluan ezarritakoari heltzen dioten errentak sortzen baditu, artikulua honetan ezarritakoa dela bide kentzen diren kopuruak ez dira sartuko zerga oinarrian integratzen ez diren errenten zenbatekoan.”

Bi. 51. artikuluko 1. idatz zatiko lehenengo paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“1. Zergadunek zerga oinarritik kendu ahal izango dute zerga ondorioetarako euren ondare garbian aurreko bi ekitaldietako batez bestekoaren aldean gertatutako gehikuntzaren ehuneko

10. Kenkaria aplikatuz gero, gehikuntzaren besteko zenbatekoa erreserba batean sartu behar dute eta ezin dute erreserba hori baliatu gutxienez bost urte pasatu arte kenkaria aplikatzen den zergaldia amaitzen denetik, kapitalean sartutako gehikuntzaren zatia izan ezik.”

Hiru. 116. artikuluko 2. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Artikulu honetako aurreko idatz zatian errentak zerga oinarrian ez sartzeaz ezarritakoa erakundearen higiezinak eskualdatuta lortutako errentei ere aplikatuko zaie, baldintza hau betez gero: eskualdatu aurretik erakundeak gutxienez 10 urtean eduki behar izan ditu errentatuta edo lagata, foru arau honetako 115. artikuluan ezarritako kasuetan.

Higiezina eskualdatu bada, errentak zerga oinarrian ez integratzeko ezinbestekoa izango da, gainera, hura ez eskuratzea errentariak ez lagapen hartzaileak.”

Lau. Hamaseigarren xedapen gehigarriko 3. idatz zatia aldatu da eta honela geratuko da idatzita:

“3. Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren 25. artikulua aldatu da eta honela geratuko da idatzita:

25. artikulua. Kooperatiba-itzulkinen zergapetze bikoitza kentzea.

Sozietateen gaineko zergaren zergadun diren kooperatiba babestuetako bazkideek, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 33. artikulua 1. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko diete jasotzen dituzten kooperatiba-itzulkinei, zergapetze bikoitza kentzearen. Babes bereziko kooperatiba izateagatik, etekin horiek Foru Arauaren 27. artikulua 2. idatz zatian aurreikusitako kenkaria baldin badute, itzulkin horiei Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 33. artikulua 2. idatz zatian xedatutakoa aplikatuko diete.

Hala ere, ez da artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko sozietate kooperatiboen zerga-oinarri berezian sartzeko diren kooperatiba-itzulkinekin kasuan.

III. KAPITULUA

KOOPERATIBEN ZERGA ARAUBIDEA

3. artikulua. Kooperatiben zerga araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauaren aldaketa

27. artikuluko 2. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Sozietateen gaineko Zergaren ordainketan kuota likidoaren ehuneko 50eko kenkaria aplika dezakete.

Nekazaritzako Ustiategiak Berriztatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legeko 5. artikulua lehentasunezko elkarte ustiategiak aipatzen ditu; bada, ustiategi horiek babes bereziko nekazaritzako kooperatibak badira foru arau honetan ezarritakoaren arabera, kuota likidoaren kenkaria ehuneko 75 izango da.

Gainera, foru arau honetako 26. artikuluko 2. idatz zatiko hirugarren eta laugarren paragrafoetan ezarritako ehunekoak idatz zati honetan finkatutako kenkari ehunekoaren proportzioan zuzenduko dira.”

IV. KAPITULUA

OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINKO ZERGA

4. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren aldaketa

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauko 22. artikuluari 9. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“9. Banako enpresa bat, profesional negozio bat edo erakunde bateko partaidetza “inter vivos” eskuratzen badu ezkontideak edo izatezko bikotekideak (Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako bikotea), aurreko edo ondorengo ahaide batek edo adoptatu edo adoptatzaile batek eta eskuraketari Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauko 6. artikuluko bigarren idatz zatian araututako salbuespena aplikatu ahal bazaio, Zergaren oinarriari ehuneko 95eko murrizketa aplikatu ahal izango zaio, ondoko baldintza hauek betez gero:

a) Dohaintza emaileak hirurogeita bost urte eduki behar ditu gutxienez edo ezintasun iraunkorren egon behar da (erabatekoa zein baliaezintasun handia).

b) Dohaintza emaileak zuzendaritza lanak egin izan baditu, eskualdaketa gertatzen denetik bertan behera utzi behar ditu eta ezin ditu jaso lanoi dagozkien ordainsariak.

Hori dela eta, sozietatearen administrazio kontseiluko kidea izatea, besterik gabe, ez da zuzendaritza lanak egitea.

c) Dohaintzaren eskritura publikoa egiten den egunaren ondoko 5 urteetan dohaintza hartzaileak bere esku eduki behar du jasotakoa eta Ondarearen gaineko Zergaren salbuespenarako eskubidea eduki behar du,aldi horretan hiltzen denean izan ezik. Halaber, dohaintza hartzaileak ezin izango du egin zuzenean edo zeharka eskuraketa balioa nabarmen murriztu dezakeen xedapen egintzarik ez sozietate eragiketarik.

Idatz zati honetan aipatzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, aplikatutako murrizketaren ondorioz ordaindu gabe geratu den zerga zatia eta beraren berandutza korrituak ordaindu beharko dira.”

V. KAPITULUA

IRABAZTEKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEAK ETA MEZENASGORAKO ZERGA PIZGARRIAK

5. artikulua. Irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauaren aldaketa

21. artikuluko 2. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Kenkariaren oinarria ezin da izan Zergaren likidazio oinarriaren ehuneko 30 baino gehiago.

XEDAPEN GEHIGARRIA

2012ko apirilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte, Ondarearen gaineko Zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauko 6. artikuluko bigarren idatz zatian araututako salbuespenaz foru arau honetako 4. artikuluan xedatutakoa honi dagokiola pentsatu behar da: Ondarearen gaineko Zergari buruzko abenduaren 11ko 23/1991 Foru Arauan salbuespen hori aipatzen den artikulua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehen. Indarrean jartzea eta ondorioak.

1. Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

2. Foru arau honetan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aldaketak 2014ko urtarrilaren 1ean hasiko dira ondorioak sortzen; irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko Foru Arauaren aldaketak 2014ko urtarrilaren 1ean; Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren eta kooperatiben zerga araubideari buruzko Foru Arauaren aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko dira; Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aldaketek 2012ko apirilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak.

Bigarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Foru Aldundiak foru arau hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzake.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 18a

Lehendakaria

JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA